

Hezkuntza orientabidea eta tutoretza

1. Oinarrizko datuak

- **Modulua:** Generikoa
- **Izaera:** Derrigorrezkoa
- **ECTS kredituak:** 3
- **Iraupena:** 3 aste
- **Irakaslea:** Irene Lopez Goñi

2. Irakasgaiaren azalpena eta testuingurua

Ikasgai hau Modulu Generikoan (MG) kokatzen da eta, modulu honetako beste ikasgaiekin batera, formazio psikopedagogikoa eta didaktikoa eskaintzen du.

Tutoretza lana aurrera eramaten da maila eta hezkuntza testuinguru ezberdinetan. Halaber, kontuan izan behar dugu master honek edozein Hezkuntza mailatan edo modalitatetan tutore aritzeko gaitasuna ematen duela. Horregatik, hain zuzen ere ikasgai honetan tutoretza funtzio eta esparru zabalak zein zehatzak landuko dira. Jorratu behar duzuen ikasgai honek lagunduko dizue tutore konpetenteak izaten.

3. Konpetentziak

- Tutoretza plan bat diseinatu, garatu eta ebaluatzea. Bereziki ekitatea, heziketa emozionala, giza eskubideen errespetua, erabakiak hartzea eta ikasleen proiektu pertsonal eta profesionala eraikitzea erraztuko dituena.
- Irakasleekin, ikasleekin, familiarekin eta komunitatearekin hezkuntza-harremanen esparruan elkarreragin positiboa gauzatzen jakitea.
- Taldean lan egiteko gaitasuna garatzea, ekintza orientatzailea talde-lana dela kontuan hartuta.
- Orientazio lana eta, bereziki, tutoretza prebentzio eta garapen sozialerako esku-hartze gisa hartzea.
- Hezitzailea izateak esan nahi duenaz kontzientzia profesionala hartzea, espezialitate bateko tituludun gisa identifikatzetik aparte.

4. Ikas-emitzak

1. Tutorearen funtzioak eta lanbide-gaitasunak identifikatu eta deskribatu.
2. Hezkuntza-harremanak eta gelako giroa hobetzeko proposamenak identifikatu ikaslego eta irakaslego jarduera-eremuetan eta estrategia horiek aztertu eta baloratu.
3. Tutoretzarako dauden programa espezifikoak eta proposamenak hautatu, deskribatu eta baloratu era kooperatiboan eta eraginkortasunez komunikatu.

4. Tutoretza Ekintza-Planak (TEP) dituen eremuak, parte hartzen duten agenteak eta ezaugarriak interpretatu.
5. Ikasgaiaren sintesia prestatu eta Portfolioa antolatu era autonomoan eta ikasitakoari buruz erreflexio sakona eginez.
6. DILAN: Ikasitakoa aplikatu era integratuan eta egoera konplexu batean eta taldean lan egiteko gaitasuna garatu.

5. Edukiak

1. Tutoretza-funtzioaren lanbide-gaitasunak eta eginbeharrekoak.
2. Ikastetxea eta ikasgela-taldea tutoretza-ekintzaren testuinguru gisa.
3. Orientaziorako eta Tutoretzarako programa espezifikokoak.
4. Tutoretza Ekintza-Plana (TEP).
5. Portfolioa.
6. DILANa.

6. Metodologia

Ikasgaiak **ikaskuntza autonomo eta esanguratsua** bultzatuko du **metodologia aktibo** baten bidez, eta UEUren online ikas-irakaskuntzarako eredu pedagogikoan oinarrituko da. Alderdi teorikoa eta praktikoa uztartuko ditu, arreta ikaskuntza-prozesuan eta konpetentzietan jartzeko.

7. Tutoretza

Tutoretza-saioen helburua ikasgaiaren inguruko zalantzak argitzea izango da. Bideo-bilera sinkronoak izango dira, eta, ikasgaiak irauten duen bitartean, bi egingo dira gutxienez. Saioen egunak eta ordutegia irakasleak proposatuko ditu Ikasgela Birtualean.

8. Ebaluazioa

Ikasgaien ebaluazioa jarraitua eta hezitzailea izango da. Kalifikazioetarako, gai bakoitzeko zereginak, azken produktua eta parte-hartzea baloratuko dira. Ikasketa-prozesuan zehar eginiko hausnarketa pertsonalei eta talde-dinamikan eginiko ekarpenei ere garrantzia emango zaie.

9. Bibliografia

- Álvarez, L., y Fernández, G. (Coord). (2003) Equipos y departamentos de orientación. Programas de asesoramiento y supuestos prácticos. Madrid:CCS. (No amicus: 1104111)
- Bautista, R. (1992). Orientación e intervención educativa en secundaria. Málaga: Aljibe
- Bisquerra Alcina, R. (1998) Modelos de orientación e intervención psicopedagógica. Barcelona: Praxis. (No amicus: 732639)

- Bisquerra, R. (Com) (2005). La práctica de la orientación y la tutoría. Barcelona: Praxis
- Echazarreta, P eta beste (1999). Irakaskuntza-lanbide orientazioko hezkidetza programa bigarren hezkuntzarako : bideak egiten = abriendo caminos. Gasteiz: Eusko Jaurlaritz (No amicus: 895525) (No amicus: 895512)
- Elias, M.J.,Tobias, S.E., Friedlander, B.S. (2001). Educar adolescentes con Inteligencia Emocional. Barcelona, Plaza y Janes.
- Esteve, J.M. (2003). La tercera revolución educativa. La educación en la sociedad del conocimiento. Barcelona: Paidós (No amicus: 2258282).
- Izquierdo, C. (1996). La reunión de profesores: participar, observar y analizar la comunicación en grupo. Barcelona: Paidós.
- Lobato, C. (1996). Trabajo en grupo. Aprendizaje cooperativo en secundaria. Leioa, Servicio de publicaciones de la UPV/EHU.
- Lopez Caballero, A. (1997). Iniciación al análisis de casos: una metodología activa de aprendizaje en grupo. Bilbao: Mensajero.
- López Urquizar, n. y Solá, T. (1999). Orientación escolar y tutoría. Granada: Grupo Editorial Universitario.
- Martin, X (2003). Tutoría : técnicas, recursos y actividades. Madrid: Alianza. (No amicus: 1099649).
- Martinez Días, M. (1991). Actividades de tutorías con alumnos de EE. MM. Madrid, MEC.
- Ministerio de Educación y Ciencia. (1992). Orientación y tutoría. Secundaria. Madrid, MEC.
- Nieto Cano, J.M. (2000). Los equipos de orientación.

Bibliografia adibideekin

- Álvarez Varez, M.(1994): “L’orientació i la tutoria en l’actual sistema educatiu. Experiències i propostes d’organització als centres d’ensenyament”. Bartzelona. Bartzelonako Unibertsitatea (Barne-erabilerako dokumentua.)
- Arnaiz, P. (1994): “Tutoretzaren fundazioa “ 26. gela.
- Arnaiz, P.; Sandarán, E. (1992): “ La tutoria a l'ensenyament secundari”. Butlletí dels Mestres, 231.
- Brunet, J.J.; negro, J.L. (1992): Tutoría con adolescentes. Madril. Ed. San Pio X.
- Gibb, J.R. (1982): Manual de dinámica de grupos. Buenos aires. Humanitak.
- Loturak Tutoretzarekin
- [https://hechingerreport.org/how-one-district-went-all-in-on-a-tutoring-program-to-catch-kids-up/?utm_source=The+Hechinger+Report&utm_campaign=b8d97fd28a-weekly_2021_07_13&utm_medium=email&utm_term=0_d3ee4c3e04-b8d97fd28a-322674653\(2021/07/14an jaso\)](https://hechingerreport.org/how-one-district-went-all-in-on-a-tutoring-program-to-catch-kids-up/?utm_source=The+Hechinger+Report&utm_campaign=b8d97fd28a-weekly_2021_07_13&utm_medium=email&utm_term=0_d3ee4c3e04-b8d97fd28a-322674653(2021/07/14an jaso))